Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

350

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko aginduarena: «Agindua, 2010eko azaroaren 29koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 2010. urteari dagokion «Migel Altzo» izeneko lehiaketa ebazten duena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Modu horretako hutsak atzeman dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren azaroaren 29ko Aginduan, zeinaren bitartez ebatzi baitzen 2010. urteari zegokion «Migel Altzo» izeneko lehiaketa (2010eko abenduaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 249. zenbakia). Hona hemen zuzenketak:

Aginduaren 2. artikuluan, 2010/6454 (1/2) orrialdean, honakoa dioenean:

«Bigarrena.– Audio-alorrean, saria (2.292 euro) honako ikasmaterial honi ematea:

Elkarlanean SL argitaletxeak ekoitzitako Urtxintxa 3 urte. Abestiak 2 ikasmaterialari».

Honako hau esan behar du:

«Bigarrena.– Audio-alorrean, saria (2.292 euro) honako ikasmaterial honi ematea:

Elkarlanean SL argitaletxeak eta Ikastolen Elkarteak ekoitzitako Urtxintxa 3 urte. Abestiak 2 ikasmaterialari».

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

350

CORRECIÓN DE ERRORES de la Orden de 29 de noviembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se resuelve el concurso «Migel Altzo» correspondiente al año 2010.

El artículo 18.2.b) del Decreto 217/2008, de 23 de diciembre, del Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones en el texto remitido para su publicación que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de los documentos, pero cuya rectificación se juzgue conveniente para evitar posibles confusiones, se corregirán por la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento. Dichas correcciones se llevarán a cabo a instancia del órgano que haya ordenado la publicación del texto.

Advertidos errores de dicha índole en el texto de la Orden de 29 de noviembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se resuelve el concurso «Migel Altzo» correspondiente al año 2010 (Boletín Oficial del País Vasco número 249, del 29 de diciembre de 2010), se procede a continuación a subsanarlos:

En el punto 2 del anuncio, en la página 2010/6454 (1/2), donde dice:

«Segundo.– En el apartado de audio, conceder el premio (2.292 euros) al siguiente material educativo:

Urtxintxa 3 urte. Abestiak 2 de Elkarlanean, S.L. argitaletxea».

Debe decir:

«Segundo.– En el apartado de audio, conceder el premio (2.292 euros) al siguiente material educativo:

Urtxintxa 3 urte. Abestiak 2 de Elkarlanean, S.L. argitaletxea e Ikastolen Elkartea».